



### **Aurkezpena**

- Inkestak, urte osoan Ipar Euskal Herrian bizi diren 13 urtetik gorako pertsonak kontuan hartzen ditu
- 1600 inkesta egin dira telefonoz, Cohda azterketa institutuko barne plataformatik:
  - 500 BABn
  - 274 Hego Lapurdin
  - 275 Lapurdi barnealdean
  - 277 Baxenabarren
  - 274 Xiberoan
- Lagina kuoten metodoaren arabera eratu da: sektore geografikoak (5), generoa, adin tarteak, KSPak eta euskaldun tasak (sektore bakoitzaren barnean).
- Lagina handitu da zenbait sektore geografikotan, eremu geografiko bakoitzean oinarri sendoagoa izateko, bai eta erantzun emaile euskaldunak eta euskaldun hartzaileak ere.
- Ondotik, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren osaeraren adierazgarri izateko gisan, emaitzak estatistikoki zuzendu dira eremu geografikoari, adin-tarteari, generoari, kategoria sozioprosionalari eta hizkuntza-gaitasunari dagokienez.
- Galdetegiak 3 hedabide mota nagusiren kontsumoa aztertzen du eta kategoria bakoitzean tokiko hedabideen kontsumoa ere:
  - Telebista;
  - Irratia;
  - Prentsa idatzia (papera eta web bitartezkoa).
- Inkestak datu kuantitatiboak eta kualitatiboak biltzen ditu:
  - Erabiltze ohiturak:
    - Behatze erregularra: egunero edo ia egunero;
    - Noizbehinkako behatzea: astean bitan edo gutxiagotan;
    - Behatze orokorra: behatze erregularra + noizbehinkakoa.
  - Behatze denborak eta moldeak.
  - Kontsumitzaileen gogobetetasuna, itxaropenak eta hobekuntza nahiak.
- 2019ko hedabideen erabiltzearen neurketa hau neurketarako oinarri berria izanen da:
  - EEPk 13 urteko tartean erabiltze ohiturei buruzko bi inkesta eginarazi ditu, lehena 2006an Ipsos-ekin eta bestea 2019an COHDArekin.
  - Emaitzak alderatu nahi badira, eta, beraz, denboran zehar izan diren bilakaerak behar bezala aztertu nahi badira, "baldintza berdinetan" egin behar da, alderdi guzietan zorrozki berak diren metodologiak erabiliz. Gisa honetan, konparagarriak diren gauzak erkatu ahal izateko, galdetegiak berdina izan behar du: hastapeneko galderak, galderen hurrenkera, erabilitako eskalak, eduki zehatza. Adibidez, ikertu beharreko hedabideen zerrendaren luzerak eragina du emaitzan. Baldintza horietan, Publizitateko Euskarriak Aztertze Zentroak (Centre d'Étude des Supports de Publicité - CESP) sistematikoki gomendatzen du baldintza metodologikoak erabat berdinak ez dituzten azterketetan lortu emaitzak ez konparatzea.
  - Alta, 2019ko inkestaren beharrek elementu berriak sartzea eskatzen zuten:
    - Galdeketa-eremua hedabide mota guzietara zabaltzea: TB eta irratia 2006an; TB, irratia, prentsa idatzia eta web egunkariak 2019an.
    - Hedabide berriak kontuan hartzea kategoria bakoitzaren barnean eta hedabideak erabiltzeko molde ezberdinak kontuan hartzea (batez ere digitala hainbat euskarritan).
    - Hedabideen eskaintzaz herritarrek duten ikuspegia eta iritzia buruzko galdera kualitatiboagoak sartzea.

- Horregatik, beharrezkoa izan da galdetegia egokitzea eta komunikabideen “erabiltze ohitura” ikuspegiaren alderdi batzuk trinkotzea, ikerketak 20 minutu baino gutxiago iraun dezan, estandar egokietan bezala.
- Hala, 2019ko azterketak oinarri berria ezarri du eta etorkizuneko beste azterketa batekin konparatzen ahalko da, azterketa baldintza arras konparagarrietan bideratzen bada. Azterketaren emaitzei esker, eskualdeko biztanleriaren behatze eta erabiltze ohiturak uler daitezke, baita zer iritzi duen ere. Horretarako, kalitateko estandarrak erabili dira: unibertsoaren definizioa, kuotak, laginaren neurria, galdetegiaren argitasuna eta egitura, zuzentze estatistikoa, tratamenduak.

### Telebistaren behatze jokamoldeak

Ipar Euskal Herriko **13 urtetik gorako biztanleen** % 90ek estatu mailako telebistak edota tokikoak kontsumitzen ditu erregulariki edo noizbehinka (% 87k estatu mailako telebistak eta % 62k tokiko telebistak). Tasa hori % 98ra igotzen da, streaming-aren eta VOD (Video On Demand) zerbitzuen behatzea ere kontuan hartzen bada.

13 urtetik gorako biztanle batentzat, lagin osoa kontuan harturik, estatu mailako telebistak ikusten iragandako egun bakoitzeko batezbesteko denbora oren 1 eta 37 minutukoa da, 37 minutukoa tokiko telebisten kasuan eta 41 minutukoa streaming eta VOD zerbitzuen kasuan.

**Euskaldun eta euskaldun hartzaileetan**, % 92k estatu mailako telebistak edo tokikoak erregulariki edo noizbehinka ikusten dituzte: % 87k estatu mailako telebistak eta % 77k tokiko telebistak. % 61ak eduki osoa euskaraz duen tokiko telebista bat erregulariki edo noizbehinka ikusten du.

### Tokiko telebisten erabiltze ohiturak

Gehien ikusten diren tokiko 4 telebisten erabiltze-ohiturei dagokienez, 13 urtetik gorako biztanleen % 53k TVPI erregulariki edota noizbehinka begiratzen du, % 51k France 3 EHPB, % 24k ETB1 eta % 14k Kanaldude.

Biztanleen % 50ek streaming bidezko edukiak kontsumitzen dituzte noizbehinka edo erregulariki (bideoak hartzeko guneetan, youtube motakoetan), eta % 24k erabiltzen dituzte VOD zerbitzuak (Netflix motakoak).

Telebista eduki errepikatuen (replay) kontsumoa handiagoa da estatu mailako telebistetan (% 30) tokiko telebistetan baino (% 5 - % 16 artekoa), salbu Kanalduderen kasuan, euskarazko web telebista % 33k replay moldean kontsumitzen baitu.

	Behatze erregularra (egunero edo ia egunero)		Noizbehinkako behatzea (astean behin edo 2 aldiz edo gutxiagotan)		Behatzea orotara (egunero edo ia egunero edo gutxiagotan)	
	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak
Estatu mailako TB	% 66	% 65	% 22	% 22	% 87	% 87
TVPI	% 10	% 17	% 43	% 50	% 53	% 67
FR3 EHPB	% 24	% 37	% 27	% 31	% 51	% 68
ETB1	% 4	% 12	% 19	% 36	% 24	% 47
Kanaldude	% 1	% 3	% 13	% 34	% 14	% 37
Txirrita	-	-	-	-	% 13	% 25

ETB3	% 1	% 2	% 4	% 10	% 5	% 12
Noa TV	% 0,4	% 1	% 3	% 4	% 3	% 5
VOD	% 10	% 5	% 14	% 10	% 24	% 14
Streaming	% 22	% 16	% 28	% 26	% 50	42%

**Euskarazko telebista eskaintzaren** kalitatea gogobetegarria dela uste dute eskaintza hori kontsumitzen duten pertsonen % 93k.

Euskarazko telebistako albistegiak (gehien kontsumitzen diren saioak) euskarazko telebista-dukien kontsumitzaileen % 69k ikusten dituzte. Tokiko informazioari dagokionez, Ipar eta Hego Euskal Herriko berriak dira gehien nahi direnak.

Euskarazko eduki gehiago izatea da gehien agertzen den hobekuntza nahia, euskarazko edukia duen tokiko telebista kate bat bederen begiratzen duten euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 41ek nahi hori adierazten baitute.

Euskaldunei eta euskaldun hartzaileei galdatzen zaienean zergatik ez dituzten euskarazko telebista edukiak kontsumitzen, % 43k erantzuten dute edukia ez dela haien interesekoa eta % 31k TB kate horiek errezibitzeko zailtasunak aipatzen dituzte.

France 3 EHPBko telebista-ikusle euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 64k kate horretan euskarazko eduki gehiago nahi lukete. TVPIri dagokionez, bere ikusle euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 62k nahi lukete kate horretan euskarazko eduki gehiago izan daitezen.

### **Irratiaren behatze jokamoldeak**

Ipar Euskal Herriko **13 urtetik gorako biztanleriaren** % 84k estatu mailako irratiak edota tokikoak kontsumitzen ditu erregulariki edo noizbehinka (% 67k estatu mailako irratiak eta % 53k tokiko irratiak). 13 urtetik gorako biztanleria kontuan harturik, pertsona batek egunean batez-beste 57 minutu iragaten ditu estatu mailako irratiak entzuten, 1:15 oren tokiko irratiak entzuten eta 3 minutu podcastak edo irrati filmatuak kontsumitzen.

**Euskaldun eta euskaldun hartzaileen artean,** % 88k entzuten ditu estatu mailako irratiak edo tokikoak: % 55ek estatu mailako irratiak eta % 78k tokiko irratiak. % 66 dira euskara hutsezko edukia duen irrati bat bederen entzuten dutenak.

### **Erabiltze ohiturak irratika**

Gehien entzuten diren tokiko 4 irratiaren erabiltzeari begiratu agertzen da 13 urtetik gorako biztanleriaren % 43k erregulariki edo noizbehinka France Bleu Pays Basque entzuten duela, % 27k Euskal Irratiak, % 11k EITB eta % 8k Gaztea.

	Behatze erregularra (egunero edo ia egunero)		Noizbehinkako behatzea (astean behin edo 2 aldiz edo gutxiagotan)		Behatzea orotara (egunero edo ia egunero edo gutxiagotan)	
	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak
Estatu mailako irratiak	% 52	% 44	% 15	% 11	% 67	% 55
France Bleu PB	% 21	% 35	% 22	% 25	% 43	% 59

Euskal Irratiak	% 11	% 33	% 16	% 30	% 27	% 63
EITB	% 4	% 5	% 7	% 10	% 11	% 16
Euskadi Gaztea	% 3	% 5	% 5	% 8	% 8	% 13
Bonne Humeur	% 2	% 2	% 5	% 6	% 7	% 8
Euskadi Irratia	% 1	% 2	% 5	% 10	% 6	% 12
Mendililia	% 2	% 5	% 4	% 9	% 6	% 14
Lapurdi Irratia	% 0,1	% 0,3	% 3	% 5	% 3	% 5
Bonne Nouvelle	% 0,2	-	% 2	% 2	% 2	% 2
RadioKultura.eus	% 0,1	% 0,2	% 2	% 3	% 2	% 3
Radio Star	% 0,3	% 0,3	% 1	% 2	% 2	% 2
Podcastak	% 1	% 1	% 4	% 2	% 5	% 3
Irrati filmatuak	% 0,1	% 0,1	% 1	% 1	% 2	% 1

Euskal Irratiak da Baxenabarren gehien entzuten den irratia, 13 urtetik gorako biztanleriaren % 66ren behatze orokorra izaki (bigarrena France Bleu Pays Basque da, % 62ko behatze orokorrarekin). Euskal Irratien behatze orokorra % 15era jausten da BABn.

**Euskarazko irrati eskaintzaren** kalitatea gogobetegarria dela uste dute eskaintza hori kontsumitzen duten pertsonen % 94k.

Musika programak dira gehien entzuten diren euskarazko programak (euskarazko irrati edukiak kontsumitzen dituztenen % 81ek entzuten ditu), tokiko berriak dira hurrengo entzunenak (% 66). Gehien nahi diren tokiko berriak, Ipar eta Hego Euskal Herriari buruzkoak dira.

Euskarazko emankizun edo edukiak entzuten dituzten euskaldun eta euskaldun hartzaileek gehien igurikatzen dituzten hobekuntzak euskarazko eduki eta programa gehiago izatea, irratiak hobeki errezibitzea eta kalitate hobeko programak izatea dira.

Euskaldunei eta euskaldun hartzaileei zergatik ez duten euskarazko irrati edukirik kontsumitzen galdegitean, ulermen arazoak (% 26) eta emankizun horiekiko interesik eza (% 26) dira adierazitako ez entzutearen lehen arrazoiak.

France Bleu Pays Basque irrati entzule euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 50ek euskarazko eduki gehiago nahi lituzke irrati horretan.

## **Prentsa idatziaren eta web egunkarien behatze jokamoldeak**

### **Egunkariak:**

- 13 urtetik gorako biztanleriaren % 55ek egunkariak kontsumitzen ditu erregularri edo noizbehinka: % 20 estatu mailako egunkarien irakurleak dira eta % 52 tokiko egunkarien irakurleak;
- Eguneroko batezbesteko irakurketa denbora 25 minutukoa da;
- Euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 63k egunkariak kontsumitzen ditu: % 21 estatu mailako egunkarien irakurleak dira eta % 60 tokiko egunkarien irakurleak (% 15 euskara hutseko edukia duten egunkariak).

**Astekariak:**

- 13 urtetik gorako biztanleriaren % 29k astekariak kontsumitzen ditu erregulariki edo noizbehinka: % 20k estatu mailako astekariak irakurtzen dituzte eta % 14k tokiko astekariak;
- Eguneroko batez-besteko irakurketa denbora 11 minutukoa da;
- Euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 36k irakurtzen dituzte astekariak: % 17 estatu mailako astekarien irakurle dira eta % 27, aldiz, tokiko astekarien irakurle (% 12 euskara hutseko edukia duten astekariak)

**Web egunkariak:**

- 13 urtetik gorako biztanleriaren % 36k web egunkariak kontsumitzen ditu erregulariki edo noizbehinka: % 26 estatu mailako web egunkarien irakurle dira eta % 29 tokiko web egunkarien irakurle.
- Eguneroko batezbesteko irakurketa denbora 12 minutukoa da;
- Euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 33k irakurtzen dituzte astekariak: % 22 estatu mailako web egunkarien irakurle dira eta % 28 tokiko web egunkarien irakurle (% 12 euskara hutseko edukia duten web egunkariak).

**Erabiltze ohiturak kazetaka**

13 urtetik gorako biztanleriaren % 51k Sud-Ouest irakurtzen du erregulariki edo noizbehinka. - Euskaldun eta euskaldun hartzaileen artean % 14k Berria erregulariki edo noizbehinka kontsumitzen dute eta % 57k Sud-Ouest.

Sud-Ouesteko irakurle euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 46k uste du euskarazko eduki gehiago beharko litzatekeela egunkari horretan.

	Irakurketa erregularra (egunero edo ia egunero)		Noizbehinkako irakurketa (astean behin edo 2 aldiz edo gutxiagotan)		Irakurketa orotara (egunero edo ia egunero edo gutxiagotan)	
	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak
Estatu mailako egunkariak	% 8	% 7	% 12	% 14	% 20	% 21
Sud-Ouest	% 30	% 42	% 21	% 15	% 51	% 57
La République des Pyrénées	% 2	% 3	% 3	% 3	% 5	% 6
Berria	% 1	% 2	% 3	% 12	% 4	% 14

**Erabiltze ohiturak astekarika**

13 urtetik gorako biztanleriak gehien irakurtzen duen astekaria «La Semaine du Pays Basque» da, % 11ko irakurketa orokorra du (erregularra + noizbehinkakoa). Mediabask da bigarren irakurriena, % 4ko irakurketa orokorrarekin (erregularra + noizbehinkakoa).

Herria euskarazko astekaria erregulariki edo noizbehinka kontsumitzen dute euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 11k eta Ipar Euskal Herriko Hitza euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 2k.

Mediabask irakurtzen duten euskaldun eta euskaldun hartzaileen % 33k uste dute euskarazko eduki gehiago beharko litzatekeela astekari horretan.

	Irakurketa erregularra (egunero edo ia egunero)		Noizbehinkako irakurketa (astean behin edo 2 aldiz edo gutxiagotan)		Irakurketa orotara (egunero edo ia egunero edo gutxiagotan)	
	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzailleak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzailleak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzailleak
Estatu mailako astekariak	% 4	% 3	% 16	% 13	% 20	% 17
La Semaine du pays Basque	% 0,1	-	% 11	% 15	% 11	% 15
Mediabask	% 1	% 2	% 3	% 8	% 4	% 10
Herria	% 0,3	% 1	% 3	% 10	% 3	% 11
IEHko Hitza	-	-	% 1	% 2	% 1	% 2
Argia	-	-	% 1	% 2	% 1	% 2

### Erabiltze ohiturak web egunkarika

13 urtetik gorako biztanleriaren % 27k erregulariki edo noizbehinka irakurtzen dute Sudouest.fr web egunkaria eta % 8k Mediabask.eus.

Euskaldun eta euskaldun hartzailen % 23k erregulariki edo noizbehinka irakurtzen dute Sudouest.fr, % 16k Mediabask.eus, % 9k Berria.eus, % 7k Kazeta.eus eta % 3k Iparraldekohitza.eus.

Ohartzen gara ere Mediabask gehiago irakurtzen dutela euskaldun eta euskaldun hartzailleak (% 16) erdaldunek baino (% 4).

Mediabask.eus-eko irakurle euskaldun eta euskaldun hartzailen % 40k uste du euskarazko eduki gehiago beharko litzatekeela web egunkari horretan.

	Irakurketa erregularra (egunero edo ia egunero)		Noizbehinkako irakurketa (astean behin edo 2 aldiz edo gutxiagotan)		Irakurketa orotara (egunero edo ia egunero edo gutxiagotan)	
	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzailleak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzailleak	Orotara	Euskaldunak + euskaldun hartzailleak
Estatu mailako web egunkariak	% 10	% 8	% 16	% 14	% 26	% 22
Sudouest.fr	% 12	% 10	% 15	% 12	% 27	% 23
Mediabask.eus	% 3	% 8	% 5	% 8	% 8	% 16
Berria.eus	% 1	% 3	% 2	% 6	% 3	% 9
Kazeta.eus	% 1	% 3	% 1	% 5	% 2	% 7
Iparraldekohitza.eus	% 0	% 0,1	% 1	% 3	% 1	% 3

Euskarazko edukia duen prentsaren (papera eta web egunkariak) irakurleen **% 97k uste du prentsa eskaintzaren kalitatea gogobetegarria dela.**

Tokiko berriak dira euskaraz gehien irakurtzen diren gaiak, euskarazko prentsaren irakurleen % 76k irakurtzen ditu eta Ipar eta Hego Euskal Herriko berriak dira gehien nahi direnak.

Euskarazko edukia duten egunkariak, astekariak eta web egunkariak irakurtzen dituzten irakurle euskaldunek gehien aipatzen dituzten hobekuntza ildoak, euskarazko eduki gehiago ikustea (% 32) eta edukien kalitatea hobea izatea (% 20) dira.

Euskaldunei eta euskaldun hartzaileei galdegiten zaielarik zergatik ez duten euskarazko edukia duten egunkari, astekari edo web egunkaririk irakurtzen, % 50ek euskara idatzirik ulertzeko arazoak aipatzen dituzte eta % 29k erantzuten dute euskaraz irakurtzeko interesik ez dutela, ez direla horretara usatuak edo nahiago dutela frantsesez irakurri.

### Euskarazko hedabideak eta euskaldunen kontsumoa

13 urtetik gorako biztanleriaren % 42k erregulariki edo noizbehinka, gutxienez euskara hutseko edukia duen hedabide bat kontsumitzen dute. Tasa hori % 88ra igotzen da euskaldunen artean eta % 63ra euskaldun hartzaileen artean. Euskara ez dakien 13 urtetik gorako biztanleriaren % 26k erregulariki edo noizbehinka gutxienez euskarazko hedabide bat kontsumitzen dute (% 12k Euskal Irratiak eta % 14k EITB).

Euskal Irratiak erregulariki edo noizbehinka entzuten dute 13 urtetik gorako biztanleen % 27k, euskaldunen % 73k eta euskaldun hartzaileen % 41ek, horiek horrela, gehien kontsumitua den euskarazko hedabidea da. ETB1 bigarrenik iristen da, 13 urtetik gorako biztanleen % 24k begiratzen baitu, euskaldunen % 54k eta euskaldun hartzaileen % 33k.

Euskarazko hedabideen behatze orokorra (erregularra + noizbehinkakoa)

	Orotara	BAB	Hego Lapurdi	Lapurdi Barnealdea	Baxenabarre	Xiberoa	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Euskaldunak + euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
Euskal Irratiak	% 27	% 15	% 25	% 31	% 66	% 58	% 73	% 41	% 63	% 12
ETB1	% 24	% 15	% 31	% 25	% 39	% 35	% 54	% 33	% 47	% 14
Kanaldude	% 14	% 6	% 14	% 17	% 37	% 24	42%	% 25	% 37	% 4
Gaztea	% 8	% 7	% 11	% 8	% 8	% 5	% 16	% 6	% 13	% 6
Euskadi Irratia	% 6	% 5	% 8	% 5	% 5	% 5	% 12	% 11	% 12	% 3
ETB3	% 5	% 5	% 6	% 4	% 5	% 5	% 12	% 10	% 12	% 2
Berria	% 4	% 2	% 6	% 5	% 7	% 7	% 18	% 4	% 14	-
Herria	% 3	% 0,4	% 4	% 3	% 16	% 2	% 12	% 7	% 11	-
Berria.eus	% 3	% 1	% 5	% 2	% 6	% 6	% 11	% 6	% 9	-
Kazeta.eus	% 2	% 1	% 3	% 2	% 3	% 5	% 8	% 5	% 7	-
IEHko Hitza	% 1	% 1	% 1	-	% 1	% 1	% 2	% 1	% 2	-
Iparraldeko Hitza.eus	% 1	% 1	% 1	% 1	% 2	% 4	% 4	% 1	% 3	% 0,3
Orotara	% 42	% 28	48%	% 47	% 73	% 66	% 88	% 63	% 80	% 26
Orotara	1600	688	354	362	127	69	320	147	468	1132

### Euskal Hedabideak xehekiago

Euskal Hedabideak elkartean bilduak diren lurraldeko euskarazko hedabideei dagokienez (Euskal Irratiak, Kanaldude, Herria, Kazeta.eus, IEHko Hitza), 13 urtetik gorako biztanleen % 31k erregulariki edo noizbehinka hedabide horietarik bat bederen kontsumitzen du, kontsumo hori % 80ra heltzen da euskaldunen artean, % 53ra euskaldun hartzaileen artean eta % 14ra erdaldunen artean.

Euskal Irratiak eta Kanaldude dira behatze handiena duten lurraldeko bi hedabideak: euskaldun eta euskaldun hartzailen % 63k erregulariki edo noizbehinka Euskal Irratiak entzuten dute eta % 37k erregulariki edo noizbehinka Kanaldude begiratzen dute.

Euskal Hedabideetako euskarazko prentsa idatziko hedabideen kontsumoa apalagoa da euskaldunen artean, % 12k Herria irakurtzen dute erregulariki edo noizbehinka, % 8 Kazeta.eus, % 4k iparraldeko hitza.eus eta % 2k IEHko Hitza.

	Orotara	BAB	Hego Lapurdi	Lapurdi Barnealdea	Baxenabarre	Xiberoa	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Euskaldunak + euskaldun hartzailak	Erdaldunak
Euskal Irratiak	% 27	% 15	% 25	% 31	% 66	% 58	% 73	% 41	% 63	% 12
Kanaldude	% 14	% 6	% 14	% 17	% 37	% 24	% 42	% 25	% 37	% 4
Herria	% 3	% 0,4	% 4	% 3	% 16	% 2	% 12	% 7	% 11	-
IEHko Hitza	% 1	% 1	% 1	-	% 1	% 1	% 2	% 1	% 2	-
Iparraldeko Hitza.eus	% 1	% 1	% 1	% 1	% 2	% 4	% 4	% 1	% 3	% 0,3
Kazeta.eus	% 2	% 1	% 3	% 2	% 3	% 5	% 8	% 5	% 7	-
Orotara	% 31	% 18	% 31	% 36	% 69	% 61	% 80	% 53	% 71	% 14
Orotara	1600	688	354	362	127	69	320	147	468	1132

### EiTB taldea xehekiago

Eusko Jaurlaritzaren hedabide publikoen taldeak % 34ko behatze orokorra du 13 urtetik gorako biztanleen artean, % 64koa euskaldunen artean, % 47koa euskaldun hartzailen artean eta % 24koa erdaldunen artean.

	Orotara	BAB	Hego Lapurdi	Lapurdi Barnealdea	Baxenabarre	Xiberoa	Euskaldunak	Euskaldun hartzailak	Euskaldunak + euskaldun hartzailak	Erdaldunak
ETB1	% 24	% 15	% 31	% 25	% 39	% 35	% 54	% 33	% 47	% 14
ETB3	% 5	% 5	% 6	% 4	% 5	% 5	% 12	% 10	% 12	% 2
EITB	% 11	% 9	% 19	% 11	% 8	% 4	% 18	% 12	% 16	% 10
Euskadi Gaztea	% 8	% 7	% 11	% 8	% 8	% 5	% 16	% 6	% 13	% 6
Euskadi Irratia	% 6	% 5	% 8	% 5	% 5	% 5	% 12	% 11	% 12	% 3
Orotara	% 34	% 25	% 44	% 36	% 49	% 40	% 64	% 47	% 59	% 24
Orotara	1600	688	354	362	127	69	320	147	468	1132



### **Hainbat hedabideren kontsumoa**

13 urtetik gorako biztanleriak batezbeste tokiko 4,2 hedabide kontsumitzen dituzte (noizbehinka eta erregulariki). Batez besteko hori 7,1era igotzen da euskaldunen artean. Kontsumo erregularri dagokionez (egunero edo ia egunero), 13 urtetik gorako biztanleek tokiko 1,5 hedabide kontsumitzen dituzte egunero, euskaldunek 2,6.